

BANDOA

(B4-2017)

ZERBITZU AUNITZETAKO 5 PEOI KONTRATATZEA

Berako Udalak zerbitzu aunitzetako 5 peoi kontratatu behar ditu, ondoko baldintzekin:

- Eskatutako titulazioa: Eskola-ziurtagiria, DBHko graduatua, Eskola Graduatua, Oinarrizko Lanbide Heziketa, lehen mailako Lanbide Heziketako tituluak edo baliokideak izatea.
- Kontratuaren iraupena: 2017ko martxoaren 15etik irailaren 14ra (6 hilabete).
- Hautagaiak langabezian egon behar dute eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Enplegu bulegoetako batean enplegu eskatzaile bezala izena emanak. Nafarroako Enplegu Zerbitzuan egindako hasierako sondeoan atera ez diren pertsonak 2017ko otsailaren 24ra arte onartzen ahal dira, aldez aurretik Zerbitzu horrekin harremanetan jarrita.
- Kontratazio honetan 5 langileetatik 2 pertsona Errenta Bermatua jasotzen dutenak eta 2 emakume izango dira.
- Eskakerak aurkeztea: Nafarroako Enplegu Zerbitzuko abisoa jaso dutenek kurrikuluma aurkeztu behar dute Herriko Etxean, 2017ko martxoaren 1eko 13:30ak arte.

Bera, 2017.02.16

ALKATEA,
Josu Iratzoki Agirre